

MICAELA PORTILLA IKERGUNEA

NORBERE ALDETIK JOKATZEN DUTEN UNIBERTSITATE BARRUKO ESKATZAILEEK EDOTA UNIBERTSITATEZ KANPOKO ESKATZAILEEK IRAKASKUNTZA ETA BILERA ARETOAK ALOKATZEKO PROZEDURA

1.- Micaela Portilla Ikerguneak baditu lan eta bileretarako aretoak. Honako hauek dira norbere aldetik jokatzeko duten unibertsitate barruko eskatzaileei edota unibertsitatez kanpoko eskatzaileei aplikatu beharreko tarifak 2025. urtean:

Aretoa	Prezioa	Edukiera	Gela kopurua
Areto nagusia	Egun bat: 1.453 € Egun erdia: 727 € Ordu bat: 195 €	108 pertsona	Gela 1
Bilera aretoak	Egun bat: 386 € Egun erdia: 195 € Ordu bat: 38 €	14 pertsona	5 gela
Lan gelak	Egun bat: 386 € Egun erdia: 195 € Ordu bat: 38 €	16-40 pertsona artean	4 gela
Lan gelak	Egun bat: 696 € Egun erdia: 349 € Ordu bat: 77 €	60 pertsona	Gela 1

2.- Aretok eraikina irekita dagoen egunetan eta orduetan bakarrik erreserba daitezke, hau da, 08:00etatik 21:00etara, jaiegunak kanpo utzita.

3.- Ordutegiei dagokienez, egun bat 12 ordu dira (08:00etatik 20:00etara) eta egun erdia sei ordu (08:00-14:00 edo 14:00-20:00). Gainerako kasuetan, ordubeteko tarifa aplikatuko da, hau da, orduko tarifa bider gela erabiltzeko hartutako ordu kopurua.

4.- Erakunde pribatuen kasuan, prezio horiei dagokien BEZa erantsiko zaie.

5.- Erreserba ezeztatuz gero, ikerguneari jakinarazi beharko zaio lanegun bat lehenago gutxienez.

6.- Eskatzaileek ikerguneko langileek adierazten dizkieten baldintza eta eskakizun guztiak bete eta errespetatu beharko dituzte. Aretoen erabilera desegokiak edo arduragabeak eragindako kalteak erreserba egin duenari egotziko zaizkio.

7.- Entitate edo pertsona eskatzaileek erakusgai jarritako materiala montatu/desmontatu beharko dute, eta eraineko instalazioak jardueraren aurretik zeuden bezala utzi. Eraikinak ez du erantzukizunik hartuko erakusgai jarritako materialaren gainean.

8.- Aretoei buruzko informazio gehiago behar izanez gero: <https://www.ehu.eus/eu/web/micaelaportillaikergunea/eraikina>. Erreserbak egiteko: 945014003; 945014508

9.- Eskatzaileek bete beharko dute eskaera orria, eta onartu, alde batetik, eskatutako jarduera egikaritzeko baldintzak, eta bestetik, UPV/EHUko espazioak erabiltzeko erabakia.

10.- Alokairu hauei aplikatu beharreko arauak UPV/EHUren 2025eko aurrekontuen III. liburukian ezarritakoak dira, III. eranskina (UPV/EHUko lokalak eta instalazioak erabiltzeko tarifak), baita 2018ko Arabako Campuseko Ikastegi eta Eraikinen Barne eta Kanpoko Guneen Erreserba eta Erabilerako Instrukzioa.